

Azkoitiko
**Immigrazioaren
Diagnostikoa 2016**
eta **Bizikidetzaren eta
Aniztasun Plana 2016-2019**

Laburpen sintetikoa





AURKIBIDEA

Laburpen exekutiboa	5
1. Sarrera	7
2. Azkoitiko immigrazioaren diagnostikoa	9
Datu estatistikoak: kopurua, bilakaera eta jatorriak	9
Anlisi kualitatiboa: elkarrizketak	14
3. Bizikidetzaren eta Aniztasun Plana (2016-2019)	19



LABURPEN EXEKUTIBOA

Azkoitiko migrazio fluxuak nagusiki krisi aurreko urteetan eman dira. Krisi garaian fluxu hauek gutxitu egin dira eta atzerritarren kopurua jaitsi ez bada ere, aurreko urteetako hazkundea asko moteldu da. Joera hau Espainia zein EAEko beste hainbat herritan ere eman da, eta testuinguru ekonomikoari eta lan-merkatuak eskaintzen dituen aukerei erabat lotuta dago.

Horrela bada, 2015. urtean Azkoitian populazio atzerritarrek herriko populazioaren %7,7a suposatzen du, atzerrian jaiotakoen ehunekoa 8,3koa izanik –bigarren datu honek nazionalizazio prozesuei buruzko informazioa eskaintzen digu-. Ehuneko hori kontutan hartzen badugu, Azkoiti EAE –%8,4- zein Gipuzkoako –%8,5- ehunekoaren parera kokatzen da. Beste era batera esanda, jatorri atzerritarreko etorkinen kopurua batez bestekoaren parean kokatzen da eta ez du ezberdintasun nabarmenik azaltzen.

Azkoitiko kasuari dagokionez ezberdintasun agerikoena etorkinen barne-osaketa litzateke. Izan ere, EAEn zein Gipuzkoan jatorri latinoamerikar eta europarra nagusitzen diren bitartean, Azkoitian jatorri magrebtarra nagusitzen da eta pakistandarren presentzia ere garrantzitsua da. Datu bat aipatzearen, magrebtarrek eta asiarrek –pakistandarrek barne- jatorri atzerritarra dutenen %21,2a suposatzen dute EAEn, zifra hori oso antzekoa –%21- delarik Gipuzkoarentzat; Azkoitian aldiz, bi jatorri hauek etorkin atzerritarren %57,3a osatzen dute. Eta jatorri ezberdintasun horiek areagotu egin dira krisi garaiko urteetan, izan ere, krisi aurretik Azkoitiak EAE edota Gipuzkoako patrioarekin antzekotasun gehiago erakusten bazituen, azkeneko urteetan asko desberdindu da. Honi lotuta ikusi den beste gauza bat izan da krisi aurretik gehienak euren jatorrizko lurraldetik zuzenean etortzen zirela, azken urteetan berriz, Espainiako beste erkidegoetatik etorritakoak gailendu dira.

Errealitate ezberdin honek baditu bere inplikazioak, izan ere, jatorri magrebtarra eta pakistandarra dira kulturalki eta erlijioari dagokionez gugandik urrutien daudenak, eta gainera gizarte zaurgarritasun gehien pairatzen duten kolektiboak dira. Guzti honi bertako populazioak okerren ikusten dituen taldeak direla gehitu behar zaio.

Azkoiti norako gisa aukeratzeko faktoreen artean enplegua azpimarratu behar da. Leku guztietan bezala enplegua da migrazio proiektuaren ardatza eta lanpostu bat lortu edo mantentzeko arazoak nagusitzen direnean, beste leku batera joateko aukerak handitzen dira. Dena den, azpimarratzekoa da errotzearen aldeko hautua oso nabaria dela, elkarrizketetan argi agertu den bezala; hau da, gehienetan Azkoitira bertan gelditzeko asmoz datozela.

Elkarbizitzari dagokionez, bertako populazioaren eta etorkinen arteko harremanak mugatuak direla ikusi da. Gertaera hau berez ez da gauza "txarra" eta herri gehienetan ematen den joera da, are gehiago immigrazioa fenomeno nahiko berria denean.

Honi lotuta Azkoitian gai honen inguruan gaur egun bizi den egoera lasaia azpimarragarria da. Lehen esan bezala, Azkoitiko immigrazioak erakusten duen errealitatea beste lekuetan baino zailagoa izan arren, ikerketan parte hartu duten pertsona eta erakunde guztiek agerian utzi dute gatazka garrantzitsurik ez dagoela, giroa baketsua dela.

Testuinguru hau abiapuntutzat hartuta, Azkoitiko Bizikidetza eta Aniztasun Plana (2016-2019) landu da, honen helburua elkarbizitzari dagokionean aurrera pausoak ematea izango litzatekeelarik. Planaren filosofia bideragarritasunean eta malgutasunean oinarritzen da, ekintza asko proposatu ordez garrantzitsuenak zeintzuk diren detektatzen saiatzen da, horietan erdiratzeko. Era berean, herriaren errealitatea zein baliabide ezberdinak kontuan hartzen dira, planean jasotzen diren jarduerak bideragarriak izan daitezen.

Zehazki 23 jarduera aurreikusten dira, hiru dimentsioetan barnebiltzen direnak: berdintasun instituzionala, estrukturala eta interpertsionala. Jarduera horien berri txosten honetan jasotzen da, mota ezberdinetako ekintzak nabarmentzen direlarik.



SARRERA

Jarraian Azkoitiko Udalarentzat Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokiak egingadako Immigrazioaren diagnostikoaren (2016) eta Bizikidetza Planaren (2016-2019) laburpen sintetikoa jasotzen da. Izenburuak berak aipatzen duen bezala, ikerketa honek bi zati nagusi ditu: Diagnostikoa batetik eta Elkarbizitza eta Bizikidetza Plana bestetik.

Era berean, diagnostikoaren baitan ere bi atal bereizten dira: kuantitatiboa eta kualitatiboa. Atal kuantitatiboan Azkoitiko herrian pertsona etorkin atzerritarrek erakusten duten presentzia, azken urteetan izan duten bilakaera eta aurkezten duten profila lantzen dira. Kualitatiboan Azkoitian immigrazioarekiko harreman zuzena eta ezagutza duten instituzio, gizarte-eragile eta pertsonen elkarbizitza sakonak burutuz jasotako informazioa biltzen da, datu estatistikoaren bidez lortu ezin izan dena..

Bi txosten horiek Azkoitiko Bizikidetza Plana egiteko oinarria izan dira, bertan jasotako informazioan oinarritzen baitira Planean jasotzen diren ekintza eta jarduerak posible ezberdinak.

Esku artean dugun laburpenaren egiturari dagokionez aurreko lerroetan aipatutako edukiak jasotzen dira nagusiki. Laburpena izanik, eduki nagusiak sintetizatzeko saioa egin da; gehiago sakondu nahi izan ezker txosten osoan jasotzen diren diagnostiko zein Planaren nondik norako guztiak.

AZKOITIKO IMMIGRAZIOAREN DIAGNOSTIKOA

Datu estatistikoak: Kopuruak, bilakaera eta jatorriak

Azkoitian immigrazioaren fenomenoak gauza berria da, eta azken urteetan garapena izan duena. 1998. urtean soilik populazioaren %0,15ak zuen atzerritar nazionalitatea, 2015. urterako kopurua %7,7koa da -1. taula-. Ehuneko hori EAE eta Gipuzkoakoa baino altuagoa da -%6,3 eta %6,5- baina Espainiakoa -%10,1- edota beste autonomia erkidego batzuetakoa baino baxuagoa.

1. taula.

Populazio osoa eta atzerritarra Espainian, EAEan, probintzia bakoitzean eta Azkoitian. 2015

	Guztira	Bertakoak	Atzerritarrak	Atzerr. %, 2015	Atzerr. Kop. 1998	Atzerr. % 1998
Espainia	46.600.949	41.882.085	4.718.864	10,1	637.085	1,6
EAE	2.188.895	2.051.498	137.397	6,3	15.198	0,7
Araba	323.648	297.635	26.013	8,0%	2.460	0,9
Bizkaia	1.148.775	1.083.520	65.255	5,7%	7.437	0,7
Gipuzkoa	716.834	670.286	46.548	6,5%	5.301	0,8
Azkoitia	11.566	10.677	889	7,7	16	0,15

Iturria: EIN. Egileak egina.

Azken urteetan nazionalizazio prozesuek hartu duten garrantzia dela eta, immigrazioaren zenbakiak aztertzen direnean gero eta gehiago erabiltzen den irizpidea jaiotza lekua da, eta ez hainbeste nazionalitatea. Izan ere, espainiar nazionalitatea lortzen

duen etorkin batek estatistiketan atzerritarra izateari uzten dio eta espainiar bezala agertzen da, nahiz eta jatorrizko nazionalitatea zein berria mantendu.

Erabiltzen dugun irizpidea atzerrian jaiotakoen kopurua baldin bada –2. taula–, Azkoitiak –%8,3– ez du ezberdintasun handiegirik erakusten EAE zein Gipuzkoako datuekiko –%8,4 eta %8,5–. Azkoitiko kasuan atzerritar nazionalitateko eta atzerrian jaiotakoen aldea ez da nabariegia –%7,7 eta %8,3–, izan ere, nazionalizazio prozesua ez da ari era homogeneoan gertatzen jatorri guztietan eta latinoamerikarrak dira nagusiki espainiar nazionalitatea lortzen ari direnak; aitzitik Azkoitian jatorri nagusiak Magreb eta Asia dira aurrerago ikusiko den moduan.

2. taula.

Atzerrian jaiotakoen kopuruak eta ehunekoak Espainian, EAEn, probintzia bakoitzean eta Azkoitian. 2015


	Atzerrian jaiotakoen kopurua	Atzerrian jaiotakoen %
Espainia	6.162.932	13,2
EAE	184.197	8,4
Araba	34.037	10,5
Bizkaia	89.253	7,8
Gipuzkoa	60.907	8,5
Azkoitia	963	8,3

Iturria: EIN. Egileak egina.

Atzerrian jaiotakoez azken urteetan Espainian, EAEn eta Azkoitian erakutsi duten bilakaerari dagokionez, antzeko joerak nabarmentzen dira hiruretan, eta nolabait bi fase handi izan direla esan daiteke, lehendabizikoa ekonomia-hazkunderari lotua, atzerritar biztanleria etengabe eta nabarmen hazi zenekoa; eta bigarrena, krisialdi ekonomikoari lotua, kolektibo horren hazkundera nabarmen geldotu dena.

1. grafikoa.

Atzerrian jaiotakoen bilakaera Espainia, EAE eta Azkoitian. 1998–2015




Iturria: EIN. Egileak egina.

Edonola ere badira desberdintasunak Espainia, EAE eta Azkoitiko kasuetan. 1. grafikoan oinarritzen bagara, estatuan eta Azkoitian atzerrian jaiotakoen hazkundera nabarmenagoa izan dela ikusten dugu, EAEn berriz mantsoagoa. Azken urteei dagokionez berriz, Espainian 2012tik beherakada bat ematen da atzerrian jaiotakoen tasan, EAE eta Azkoitian berriz nolabait mantendu egiten da. Beraz, Azkoitiak hazkunde esanguratsua erakutsi du urtez urte, eta krisialdi garaian ez du beheranzko joerarik agertu, ehunekoak mantendu egin direlarik.

Azkoitiko atzeritar jatorria dutenen kopurua EAEn baino handiagoa ez den arren, osaketari dagokionez ezberdintasun nabariak erakusten ditu –2. grafikoa–. Horrela bada, EAEn latinoamerikar jatorria dutenak %45,7 diren bitartean –Gipuzkoan %44a– Azkoitian jatorri honen zenbatekoa %16,6koa da. Horren aurrean, Magreb eta Asia –Pakistan– dira jatorri nagusiak Azkoitian, bi jatorri hauek populazio etorkin atzeritarraren %57,3a osatzen dutelarik; jatorri hauentzako kopurua Gipuzkoan %21,5koa eta EAEn %21,2koa izanik.

2. grafikoa.

Atzerrian jaiotakoen ehunekoa jatorriaren arabera Azkoitia, Gipuzkoa eta EAEn. 2015



Iturria: EIN. Egileak egina.


Jatorrien banaketa horrek badu bere eragina etorkinen gizarteratzean eta elkarbizitzan, izan ere, Azkoitian nagusitzen diren kolektiboak –Magrebekoak eta Pakistanekoak– gure kulturatik urrunen aurkitzen direnak dira. Funtsean, gurearengandik ezberdinak diren erlijio, hizkuntza eta ohiturak mantentzen dituzte; europarrak eta latinoamerikarrak zentzu horretan gugandik askoz gertuago leudeke, lehendabizikoak bizimoduak eta ezaugarri sozio-ekonomiko eta kultural antzekoagoa dituztelako; bigarrenak berriz gure hizkuntza ofizialetariko bat –gaztelera– dakitelako eta jatorri erlijioso berekoak direlako. Horrela bada, eta ikerketa ezberdinek esaten dutenaren arabera, magrebtarrek eta pakistandarrek baino gizarteratzeko erraztasun gehiago izaten dituzte. Gainera, ezin da ahaztu kultura eta bizimodu desberdinak izateaz haratago jatorri magrebtar eta pakistandarrek gizarte-zaugarritasun egoera larrienak pairatzen dituztenak direla.

Dena den, jatorrien artean ere bilakaera antzeman daiteke –3. grafikoa–. Horrela bada, migrazio fluxuen hastapenetan, 2000. hamarkadako lehendabiziko urteetan

hain zuzen, Azkoitian nagusitzen zen patroia EAE edota Gipuzkoakoren antzekoa zen, jatorri latinoamerikarrak edo europarrak nagusitzen zirelarik –%31 eta %27 hurrenez hurren–. Krisi aurreko urteetan magrebtarrak iristen hasten dira –%15etik %31ra igarotzen direlarik– eta krisia eta gero pakistandarren hazkundera nabarmentzen da –%16tik %27ra igarotzen dira–.

3. grafikoa.

Atzerrian jaiotako ehunekoa jatorriaren arabera Azkoitian. 2002, 2008, 2015




Iturria: EIN. Egileak egina.

Adinari dagokionez EAE, Gipuzkoa eta Azkoitian populazio atzeritarra orokorrean bertako biztanleria baino gazteagoa dela ikusten da, oso gutxi dira 65 urtetik gorako pertsonak –4. grafikoa–. Horrek baditu bere onurak gizartean, immigrazioak gaztetu egiten baitu bertako egitura demografikoa. Biztanleria gazteagoa izateak lan egiteko adinean dagoen jende gehiago egotea esan nahi du, baita erreproduzitzeko garaian dagoen jendearen areagotzea eta jaiotza-tasa igotzea ere. Azkoitiko kasuan ez da ezberdintasun zehatz nabarmenik ikusten eta EAE edota Gipuzkoako datuen parera kokatzen da nagusiki.

4. grafikoa.

Azkoitiko populazioaren adin-taldean araberako banaketa. 2015



Iturria: EIN. Egileak egina.


Era berean, aurreko grafikoak erakusten duen populazio atzeritarraren gaztetetasunak argi frogatzen du nagusiki lan egitera etortzen direla, izan ere gehien-gehienak populazio aktiboaren baitan kokatzen dira. Ez da berdina gertatzen bertako populazioarekin,

Azkoitiko biztanleriaren %20,7a 65 urte baino gehiagokoen artean aurkitzen direlarik. Datu hauek eragin zuzena daukate etorkizuneko Ongizate Estatuaren mantenuan.

Gizarte prestazioei dagokionez, jatorri atzerritarreko biztanleriaren baitan Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren –DBE– onuradun garrantzitsuenak magrebtarrak –%50– eta pakistandarrak –%25– dira Azkoitian –5. grafikoa–. EAerekin alderatuz badago ezberdintasunik, izan ere Latinoamerika –%38– eta Magreb –%28– dira han hartzaileen artean jatorri nagusiak; nahiz eta hori esperotako datua den, izan ere, atzerrian jaiotako pertsona etorkinen jatorrietan ere ezberdintasun nabarmenak zeudela ikusi dugu erkidegoa eta Azkoitiko kasuetan –3. grafikoa–.

5. grafikoa.

DBEren erabiltzaileak nazionalitate eremuen arabera EAEn eta Azkoitian. 2016 (%)




Iturria: Lanbide. Egileak egina.

Erroldan duten pisua eta DBE jasotzaileen tasa kontutan izanda –6. grafikoa– magrebtarrena da gainontzeko etorkin taldeekin alderatuz gizarte-zaurigarritasun handiagoa pairatzen duen kolektiboa da, izan ere, DBE jasotzaileen artean erakusten duten pisua 10 puntu handiagoa da erroldan erakusten dutena –%38,3– baino.

6. grafikoa.

Pertsona etorkin atzerritarren kopuru osoa eta DBE jasotzen dutenena Azkoitian (%). 2016



Iturria: Azkoitiko udala eta Lanbide. Egileak egina.

Laburbilduz, Azkoitiko jatorri atzerritarra duen kolektiboa ez da beste lekuetan –EAE edota Gipuzkoa– baino handiagoa kopuruetan, baina bere osaketak ezberdintasunak erakusten ditu, jatorri magrebtar eta pakistandarraren nagusitasuna eta latinoamerikarren garrantzia txikia liratekeelarik horren isla. Osaketa berezi honek elementu kualitatibo garrantzitsuak jartzen ditu mahai gainean, izan ere, gizarte-zaugarritasun egoera larriena duten taldeak dira nagusi Azkoitian, eta era berean ezberdintasun kultural, erlijioso edota linguistiko gehien plazaratzen dituztenak. Ezaugarri hauek kontutan hartu beharko dira edozein neurri edo ekimen martxan jartzerako momentuan.

Analisi kualitatiboa: Elkarrizketak

Aurrez aipatu bezala, diagnostikoaren bigarren atal honen helburua lehendabizikoa osatzea eta bertan lantzen ez diren gai ezberdinak jorratzea izan da, besteak beste enplegu, etxebizitza, osasun, harreman, hizkuntza –euskara–, ikastetxe edota emakumeen egoerak landu dira.

Etorkinen jatorriari dagokionez Magreb eta Pakistan nagusitzen direla aipatu dute elkarrizketatuek, jada datu estatistikoetan ikusi den bezala. Hasierako urteetan gehien bat euren herrialdeetatik zuzenean etortzen baziren, azken urteetan Espainiako beste zenbait lekutan bizi izan direnak nabarmendu dira. Orokorrean gelditzeko asmoz datoz Azkoitira, eta edozein kasutan mugikortasuna eragiten duen faktorea enplegua da. Normalki gazteak direnak eta familiarik gabe etorri direnak dira gehien mugitzen direnak, eta jatorriari dagokionean pakistandarrak dira mugimendu gehiago erakutsi dutenak, norako gisa Irun, Bilbo, Bartzelona edota Ingalaterra agertu direlarik. Hala ere, fluxu nagusiak jadanik eman dira, gaur egun etortzen jarraitzen dute baina erritmoa moteldu egin da, krisi ekonomikoaren berri dutelako nagusiki.

Gertaera horrek argi uzten du migrazio-prozesu gehien ardatza enplegua dela, zentzu honetan lanera datoz eta ez laguntzetatik bizitzera. Krisi ekonomikoak euren eragina izan du, baina hala eta guztiz asko lanean daudela aipatzen da. Hala ere, lan merkatuan txertatzeko dituzten arazoak ere aipatzen dira.

Bizilekuari dagokionean, arazo nagusien artean bertako jendeak etorkinei ez dizkietela nahi etxeak alokatu aipatzen da, etxe huts ugari daudela eta etorkinen aldetik eskakizuna. Bestetik, etorkinak nolabait zonalde edo auzo konkretuetan –txiroenetan– ari direla kokatzen azpimarratzen da, nolabait kontzentrazio espazial bat ematen ari delarik.

Osasunaren esparruan etorkinak autoktonoak baino apur bat eskatzaileagoak direla aipatu da, gehien bat sistemaren funtzionamendua ez ezagutzeagatik. Bi arazo nagusi nabarmentzen dira: hizkuntza ez ezagutzeagatik komunikazio zailtasunak eta osasun sistemaren funtzionamenduaren inguruko ezagutzarik ezak eragindakoak.

Harremanen atala oso garrantzitsua da elkarbizitzarako, horregatik garrantzizko atala da elkarrizketen bidez landutako diagnostiko kualitatiboaren baitan. Etorkin eta autoktonoen artean harreman gutxi ematen da, tratua errespetuzkoa da orokorrean, baina sakontasun gutxikoa. Jatorrien arabera ezberdintasunak nabarmentzen dira, Sahara, Senegal edota Magrebekoak irekiagoak direla esaten da elkarrizketetan, pakistandarrak berriz nahiko itxiak. Haurren kasuan ere harremana ez da sakonegia, ikastetxe mailan harreman ona dute baina ikastorduetatik kanpora ez dira nahasten eta leku ezberdinetan jolasten dute. Hala ere, harremana denborarekin eta modu naturalean etorriko dela aipatzen dute elkarrizketatuek, bere garaian Espainiako beste leku batzuetatik etorritakoekin gertatu zen moduan.

Jatorri desberdinetako etorkinak euren artean ere gutxi harremantzen direla aipatzen da. Musulmanak direnak meskitak batzen ditu, baina hortik haratago harremana ez da sakonegia. Gehien bat aberkideekin erlazionatzen dira eta normalki harremanak onak dira.

Herri gatazkarik ez dagoela aipatzen da, urte batzuetatik hona giroa lasaitu egin dela. Hala eta guztiz, herri mailan zurrumurru asko dago, batik bat etorkinak laguntzetatik bizi direneko ustea. Zentzu horretan herritarren sentsibilizazioaren beharra sumatzen da. Aitzitik, harremanak gertukoak direnean –auzokide edota bizilagunen artekoak– normalki onak dira. Beraz badirudi halako harremanak sustatzea bi kolektiboak gerturatzeko bide bat izan daitekeela.

Etorkinek mespretxu eta irain gehien bere garaian Espainiako beste leku batzuetatik –Extremadura, Galizia– emigratutako jendearengandik jaso dute, nagusiki adinekoak direnengandik. Iskanbilak berriz normalki asteburuetan gertatu izan dira, larunbategan, gazteak edanda daudenean; zenbaitetan jarrera eta jokabide arrazistak erakutsi dituzte, nahiz eta normalki salbuespenezko kasuak izan. Hala ere, etorkizunera begira positibo agertzen dira etorkinak, egoera normalizatuko dela uste dute.

Parte-hartzeari dagokionez etorkinek orokorrean herri mailako ekintzetan partaidetza gutxi erakusten dutela aipatzen da. Hori sustatzea beharrezko ikusten da, eta horretarako hainbat ekintza proposatzen dira: etorkinen elkartearen sorrera bultzatzea; kirolean oinarritutako ekimenak sustatzea autoktono eta etorkinen artean, etab.

Autoktono eta etorkinen artean harremana egokia izan dadin hizkuntzak berebiziko garrantzia hartzen du. Esparru honetan adinaren araberako bereizketa bat ikusi da, helduek normalki gaztelera ikasten dute, errazagoa delako eta lanagatik mugitu behar badute Espainia osoan balio dielako. Haurrek berriz, Azkoitiko bi ikastetxeetan D eredia indarrean dagoenez, euskara ikasten dute eta gaztelaririk ez dakite. Zentzu horretan gaztelarerekiko kezka agertu da, euskaraz gain etorkizunean gaztelera erabili beharra izan dezaketelako.

Euskararekiko Espainiako beste leku batean bizi ostean etorri diren etorkinek erakusten dute gaur egun zailtasun handiena, jada gaztelera ikasita datozelako. Eta gene-

roari dagokionez emakumeak hizkuntza ikasteko zailtasun gehiago agertzen ditu, bizi duen gizarte isolamendu egoera dela eta.

Hizkuntzaren zailtasun horri aurre egiteko hainbat ekimen ezberdin martxan jarri izan ditu udalak. Gaur egun martxan dagoena *Euskara Plus* izeneko da, elkarrizketatuen artean iritzi desberdinak badaude ere momentuz nahiko ondo funtzionatzen ari dena. Haurren kasuan martxan dagoen programa *Mundukoloreak* izeneko da, elkarrizketatu guztiek eraginkortzat jotzen dute eta programa horrekin jarraitzearen garrantzia azpimarratzen dute.

Aurreko pasartean ikusi bezala, gazteenentzat eskolak berebiziko garrantzia du euskararen ezagutzan, baina baita euren harremanetan eta sozializazioan ere. Ikastetxeetan bizi duten errealitateari dagokionez Xabier Muniben dezentez gehiago daudela aipatzen da elkarrizketetan, horren atzean bi arrazoi nagusi leudekeelarik, alde batetik Xabier Munibe publikoa izanik merkeagoa dela, eta bestetik kutsu erlijiosorik gabekoa ikastetxea dela. Hala ere, kopuru handiagoa izateak ez du arazoa suposatzen ikastetxearentzat, nahiz eta horretan arreta jartzen jarraitu beharko den gehiegi ez dadin desorekatu.

Ikasleen ikasketa ibilbide eta integrazioan adinak badu eraginik, Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan iristen direnek ez dute arazo gehiegirik izaten, erraz ikasten dute hizkuntza eta ikastetxeetan ibilbide egokiak jarraitzen dituzte. Aldiz maila aurreratuagoetan iristen badira gaia askoz konplexuagoa bihurtzen da, hizkuntza ikasteko eta ondorioz ikasketekin aurrera egiteko zailtasun gehiago izan ohi dituztelako. Zailtasun gehiena, Espainiatik datozen etorkinek erakusten dute, gaztelerarekin datozelako eta euskara ikasteko ez dutelako gogo gehiegirik erakusten. Horrek euskaraz ikastea eta bertakoekin harremantzea zailtzen die.

Talka kulturala ere nabarmendu da ikastetxeetan, kultura, sistema, ohitura desberdinetatik datoz, eta horrek askotan funtzionamendu arazoak eragiten ditu. Zentzu horretan badirudi informazio behar bat dagoela, gure gizartean nola funtzionatzen dugun azaltzekoa, baita eurak nola funtzionatzen duten jakitekoa ere.

Diagnostikoaren bigarren atalarekin bukatzeko emakume etorkinen egoeran erdiratuko gara. Emakumeen egoerarekiko kezka nabarmena da elkarrizketatuengan, izan ere gizarte isolamendu egoera nabarmena pairatzen dutela ikusten da. Komunitatearen aldetik kontrol handia jasaten dute eta ekimen edo ospakizun desberdinetan ez dute parte hartzen, meskitara ez doaz, lanik ere ez dute egiten askok eta horrek harremanak egiteko eta hizkuntza praktikatzeko arazoak eragiten dizkie besteak beste. Jatorrien arabera desberdintasunak hautematen dira, eta isolamendu egoerarik larriena emakume pakistandarrek pairatzen dutela aipatzen da.

Ikastetxeetan ere gizona ikusgarriagoa da, nagusiki gizonak doaz bileretara eta batik bat pakistandarren kasuan da nabarmena hori, magrebtarrak apur bat autonomoagoak lirateke, dena den, hauek ere gizarte-isolamendu nabaria pairatzen dute beste jatorrietako emakumeen egoerarekin konparatzen baditugu. Gurasoen aldetik muti-

lekiko lehentasuna ikusi da, mutilei errazago uzten diete irteeretara joaten edota kirolean aritzen, neskek zailtasun gehiago dituzte eta ikastorduetatik kanpo normalki etxean daude ikasten. Baina edonola ere, gaur egun udaletik kudeatu beharreko gaia dela ikusi da, emakumea indartzeko ekimenak martxan jartzea beharrezkotzat aipatzen da.



BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUN PLANA (2016-2019)

Azkeneko atal honetan Planaren eduki orokorrak aurkezten dira. Honen printzipioei dagokienez, esan beharra dago hasieratik bideragarritasunari eman zaiola garrantzia. Fede onean oinarritutako jarduera asko proposatu ordez, diagnostikoan eta errealitatean oinarritutakoak jasotzen dira, detektatu diren beharrei aurre egiteko asmoarekin hain zuzen ere. Era berean, Planaren filosofiaren baitan dago ikuspegi malgua eta irekia izatea, eta zentzu horretan bide-orri edo gidalerro bezala ulertu beharko litzateke, momentuaren arabera egokitu daitekeena. 2016-2019 urtera arte luzatzen den Bizikidetza eta Aniztasun Planak 23 jarduera ditu, hiru esparru nagusitan bilduta daudenak:

Berdintasunezko tratu instituzionala bermatzeko jarduerak: Azkoitiko Udalak korporazio gisa bere arau, erregelamendu, barne zein kanpo zirkular eta abarretan herrian bizi diren pertsona guztien tratu berdintasuna sustatzea ahalbidetzen duten ekintzak bilduko lirateke jarduera talde honetan.

Berdintasunezko tratu estrukturala bermatzeko jarduerak: jarduera talde honek ez du diskriminazioaren borrokari lotutako helburu zehatzik, baizik eta sozializazio prozesu orokorren baitan txertatzen dira eta herriko zein euskal gizarteko gizarte egituraren eragitea dute helburu, Azkoitiko bizilagunen arteko aukera eta tratu berdintasuna biltuz.

Berdintasunezko tratu interpertsonala bermatzeko jarduerak: jarduera talde hau, orokorrean, zurrumurruen aurkako estrategiarekin zuzenki harremanduta dago, hau da, korporaziotik jatorri eta/edo arbaso atzerritarrak dituzten pertsonetik aurreiritzi eta estereotipo negatibo eta faltsuei aurre egiteko bultzatu nahi diren ekintza desber-

dinak biltzen dira hemen. Jarduera hauek jarrera, alderdi afektibo eta portaerari dagozkionak aldatzeko aspektu konatiboak lantzera bideratuta daude.

23 ekintzetatik 5 dimentsio instituzionalarekin harremanak leudeke, 10 dimentsio estrukturalarekin, eta 8 interpertsonalarekin. Era berean, hiru dimentsioen baitan sartzen ez bada ere, egokia ikusten da etorkinen gaian erreferentziazkoa izango den pertsona bat izatea.

1. Dimentsio instituzionala (5)

- 1.1. Udal zerbitzu desberdinetako araudia eta sarbide izapideak berrikusi, horietarako sarbidean edo erabileran egon daitezkeen oztopoak detektatu eta/edo gainditzeko.
- 1.2. Udaleko osoko Bilkuran elkarbizitzaren alde eta diskriminazioaren aurkako adierazpen instituzionala gauzatu.
- 1.3. Zero tolerantzia adostu elkarbizitzaren arloan eta ageriko moduan igorri diskurtso politikoan (diskurtso politikoan, adierazpen instituzionaletan, etab.).
- 1.4. Immigrazio, bizikidetza eta aniztasun gaietan koherentziazko komunikazio politika municipal bat sustatu.
- 1.5. Etorkin eta horien elkarte eta herriko beste elkarte batzuegan planaren ildoak jarraitzen duten jardunbideak indartu, udaletik lagunduak. Kulturartekotasun eta berdintasunezko tratua aldeko kriterioak sartu, planean agertzen diren ekintzei loturiko eskaerei lehentasuna eman eta kulturartekotasuna euren egitura eta funtzionamenduan sartzeari sustatu.

2. Dimentsio estrukturala (10)

- 2.1. Planetik igortzen den berdintasunezko tratua aldeko, kulturartekotasunarekiko eta diskriminazioaren aurkako borrokarekiko konprometua sozializatu sail eta zerbitzu municipal desberdinetan, elkarteetan eta Azkoitiko herritarrengan; horretarako sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak martxan jarri.
- 2.2. Komunikabide lokalekin tailer bat antolatu immigrazio, elkarbizitza eta aniztasun gaiei dagokionean jardunbide egokiak lantzearen ingurukoa.
- 2.3. Etorkinen indartze asoziatiboa eta parte-hartzea sustatzeko ekintza zehatzak bultzatu: antolaketarako orientazioa eman, bilerak antolatu, eta udal mailako diru-laguntzetan jarduerak aurkeztu ditzatela bultzatu.

- 2.4. Etorkinen harrera, gizarteratzea eta udalari buruzko informazioa ahalbidetzeko gizarte-sareen bidezko informazio zerbitzua martxan jarri.
- 2.5. Harrera eta informazioa hobetzeko udal mailan koordinazio bilera formal zein ez formalak burutu garrantzizkoak diren beste instituzio batzuekin: Osakidetza, ikastetxeak, Lanbide, etab.
- 2.6. Lanbide eta udaletxearen arteko koordinazioa martxan jarri etorkinen enplegu-garritasuna eta lan-orientazioa hobetzearen alde.
- 2.7. Emakume etorkinak ahalduntzeko eta horien gizarteratzea sustatzea helburu duten proiektuei babes berezia eskaini (esaterako “Elkarrekin” proiektuari).
- 2.8. Heziketa zentroekin modu koordinatuan lan egin kulturartekotasuna eta aniztasuna sustatzeko (kulturartekotasun astea, hitzaldiak, jaiak, etab.)
- 2.9. Ikastetxeekin modu koordinatuan lan egin ikasle etorkinengan euskara sustatzeko (Mundukoloreak programa garatu eta indartu).
- 2.10. Euskara eta lan formakuntza eta orientazioa lantzeko programak garatu eta bultzatu maila desberdinetan: euskara ezagutzen ez dutenentzat, gutxieneko oinarri bat dutenentzat, etab.

3. Dimentsio interpertsonala (8)

- 3.1. Gobernuari eta oposizioari bideratutako formakuntza mintegi bat burutu 2 urtean behin.
- 3.2. Pertsonal teknikoarentzako zurrumurruek aurkako tailerra antolatu. Pertsonal teknikoa euren zereginak burutzerakoan aniztasun, tratu berdintasun eta este-reotipo zein aurreiritzien aurkako borrokan formatzea.
- 3.3. Elkarbizitza eta aniztasuna sustatzeko jarduerak martxan jarri, diptikoak, hitzaldiak edota bestelako ekintzak bultzatuz, eta komunikabideetan integrazio ibilbide eredugarriak izan dituzten etorkinak ikusgarri eginez.
- 3.4. Bizikidetza Planera eta elkarbizitzaren aldeko neurriak sustatzeko pertsonai publikoak atxikitzea (posible izatekotan herriarekin lotura dutenak) azkoitia-rrerentzat ezagunak direnak.
- 3.5. Zurrumurruek aurkako sarea antolatu eta sustatu Azkoitiko herrian. (lehentasun ertaina).

- 3.6. Elkarbizitza eta parte-hartzea sustatu herritargoan (kirol edota kultur ekimenak, ospakizunak etab.).
- 3.7. Herritarrak elkar ezagutzeko ekimenak sustatu, hala nola, *Bizilagunak* ekimenera atxikiz.
- 3.8. Beste sail/zerbitzu/entitate batzuekin koordintatuta herritarren sentsibilizazioa lantzeko ekintzak antolatu, immigrazio atzerritarraren aurreko estereotipo negatibo eta faltsuei aurre egiteko.

